

Busturialdeko biztanleak Santimamiñen bizi zirenen oinordekoak direla frogatu du EHUKo talde batek

Duela 4.000 urte Santimamiñen bizi ziren pertsonak gaur egun Busturialdean bizi direnen arbasoak direla frogatu du EHUKo BIOMICS taldeak. Horretarako, Santimamiñen topatutako hezur-arrastoen DNA mitokondriala aztertu dute, eta gaur egungo populazioaren lagin batekin alderatu dute.

Marian Martinez de Pancorbo ikerketa-buruaren arabera, “ikerketa berritzailea da, normalean populazio arkeologikoa aztertzen baita; oraingoan, berriz, pentsatu dugu transmisio genetikoa egon zitekeela, eta horretan oinarrituta diseinatu dugu ikerketa, lehenengo aldiz”.

Hain zuzen ere, populazioa euskalduna izateak eman du horretarako aukera. “Leinuak ba ote dauden aztertzeko, hemen, abizenen bidez, erraz ikus dezakegu, 8-16 abizenak bertakoak dituzten sendiak bertan egon direla, industria-iraultza baino lehenagotik. Martinez de Pancorboren esanean, beste lekuetan ez da hain erraza izaten; kasu berezia da, beraz.



Santimamiñen topatutako baraila, duela 4.000 urtekoa. ARG.: EHU.

Hala, 158 pertsona aukeratu dituzte, eta haien DNAk kobazuloan topatutako arrastoei dutenarekin bat egiten dutela baieztatu dute. Hain justu, Martinez de Pancorbok Santimamiñeko hezurren analisi genetikoa nabarmendu nahi izan du, “teknologikoki ez baita batere erraza”. Lan hori egiteko, unibertsitateak bi laborategi prestatu ditu berariaz, “besteak beste,

DNA zaharra gaur egungoarekin ez dela kutsatzen bermatzeko”. Analisiaren zati bat, gainera, Estrasbugoko Unibertsitatearekin elkarlanean egin dute, zehazki, erreplikazioa.

Amagandiko leinua

Aztertutako hezur zaharrena duela 4.000 urteko baraila bat da. Horrez gain, hura baino gazteagoak diren beste sei hezur-zati ere erabili

dituzte alderaketan. Beti ere, mitokondrioen DNA analizatu dute, “hau da, amagandiko leinua aztertu dugu”, zehaztu du Martinez de Pancorbok.

“Hezurren adinaren arabera, 250-70 belaunaldi igaro dira ordutik, eta ziurta dezakegu Busturialdeko populazioak ez duela kanpoko ekarpen genetikoa garrantzitsurik izan denbora-tarte horretan”, azaldu du. Eta are gehiago ere esan du: “azterketek erakusten dute glaziazio-aroan Santimamiñe inguruan bizi zen jendea Europaren mendebaldean hedatu zen populazio fundatzailea izan zela. Orain, tarteko puntu bat dugu, duela 4.000 urtekoa, orain dela 10-12.000 urteko populazioa haren eta gaurkoaren artean”.

Martinez de Pancorbok aurreratu duenez, ildo beretik ikertzen jarraitzen dute, eta laster emaitza gehiago kaleratzea espero dute. ●

Malaria tratatzeko kostu txikiko molekula berriak

Malaria tratatu eta prebenitzeko gai izan litezkeen molekula sintetizatu dituzte Nafarroako Unibertsitateko Farmazia Fakultatean, Gaixotasun Ahantzien saillean. Klorokinaren antzeko jarduera dute molekulek (hori da erreferentziazko konposatua), eta, haien bidez, malaria sortzen duen *Plasmodium falciparum* parasitoaren andui klorokinarekiko erresistenteak trata litezke.

Azterketa konputazionalek agerian utzi dute garatutako molekula eratorriek ezaugarri farmakozinetiko onak dituztela, eta in vitro eta in vivo probek emaitza onak eman dituzte. ●

Lau harizpiz osatutako DNA-egitura topatu dute zeluletan

DNAREN egitura klasiko eta ikonikoa helize bikoitza bada ere, laborategian ikertzaileek beste DNA-egitura batzuekin ere lan egiten dute. Adibidez, minbiziaren ikerketetan guaninan aberatsua den DNA sintetikoa erabiltzen da, eta haren egitura lau harizpiz osatuta dago.

Ikertzaileek aspalditik susmatzen zuten bizidunen zeluletan ere bazegoela egitura hori. Orain, Cambridgeko Unibertsitateko ikertzaile batzuek susmoa baieztatu dute, eta horren berri eman dute *Nature Chemistry* aldizkari espezializatuan.

Ikertzaileen esanean, badirudi egitura berezi horrek funtzio biologiko garrantzitsuak dituela; hurrengo ikerketak, beraz, horiek argitzera zuzenduko dituzte. Besteak, beste, minbiziaren ikerketan baliagarriak izango direla espero dute. ●